

TESTU ETA ARGAZKIAK



Beñat Aizpurua Vázquez
(Irun, 1991)

Irakaslea. Natura eta mendia bidaiekin uztartzea du gustuko.

NEPALGO ZERUPEAN MENDEBALDEKO CHULU

Laino artean oreka mantentzen ibili ostean, lurra hartu dugu Nepalgo hiriburuan. Abuztua iristear da eta Katmanduk zaparrada batekin eman digu ongi etorria; ohikoa garai euritsu honetan. Eurite honek, errepide eta kaleak erabat lokaztu ditu eta, askotan zaila egiten da horietatik normaltasunez ibiltzea. Turistek ere eguzkia dute nahiago eta horregatik garai honetan ez da haien arrastorik. Pare bat egun emango dugu intsentsu eta arrosario artean mendi aldera jo aurretik eta, hauetako bat baliatuko dugu gure gida izango den Phu Dorchi Sherpa ezagutu eta mendirako beharrezkoak diren azken gauzak erosteko. Denda faltarik ez da, mendiko materiala edonon saltzen dute eta gainera, arrotz egiten zaigun salneurrian, merke oso.

Motxila prest dugu jada eta biharko zazprietan jarri dugu hitzordua. Mendebaldera egingo dugu aurrera errepide aldrebesetan kotxe, moto, kamioi eta abarren artean. Askotan ez

dugu jakiten zein den zentzu egokia, autoak ezker-eskuin joaten baitira bozina hotsen erdian. Aurrera egin ahala, arroz-soroak ugaritzen hasiko dira eta une batzuetan, hezeta-

sunak beroa jasanezina egingo du. Kostata, baina iritsi gara Besishahar herrixkara. Bihar gara Manang herrira abiatzekoak, baina afal orduan gida gaizki sentitzen hasi da eta ber-



4000 m inguruan azken atsedena Ledarren

tako klinikara eraman behar izan dugu. Ez du gurekin aurrera egiterik izango eta hurrengo eguna ere bertan pasako dugu. Badirudi, oraingoan, baten beharrea bi gida izango ditugula alboan, gainera xerpa dira biak eta bidean dira dagoeneko. Gauean elkartuko gara haiekin. Bitartean, eta aterruneak probestuz, ingurua ezagutzera irten gara. Gurekin bizkar-zorro txiki bat eta argazki kamera hartu ditugu. Denek agurtzen gaituzte ahoan irribarra dutela: *namaste!*

Arroza da herri honen sostengua eta hau gabe ez da otordurik

Eguna bertan pasa dugu eta herritarren batekin edo besterekin esne-tea elkarbanatu. Gurekin mendira joango diren gidak ere

iritsi eta elkarrekin afaldu dugu. Oraingoan, europarrontzat gordeta dituzten sardexka eta koilarak alboratu eta eskuin eskuaz jan dugu arroza, barazkiak eta oilaskoz hornitutako platerkada. Hatzen laguntzaz esku ahurra janariz bete eta bapo ase dugu sabela. Arroza da herri honen sostengua eta hau gabe ez da otordurik, berdin dio esnatu berri zaren ala oheratzera zoazen, arrozarekin hasi eta bukatuko duzu eguna. Espezia eta pikanteek ere ederki laguntzen dute jaki zuria eta azkar ohartu gara honen arriskuaz, komunera pare bat buelta egin behar izan baititugu. Hau da hau gorputzari darion sua!

Hurrengo eguna 4x4ko autoetan pasa dugu hamahiru orduz. Ibilbidea hasi bezain laster, bi ordu eman ditugu aurrera egin ezinik, egun hauetako euriteek bidea desagerrarazi dute eta. Bidean aurrera, eroritako bi zubi aurkitu ditugu eta trasteak bizkar gainean jasota, izugarriko ur-emaria duten ibaiak zeharkatu ditugu. Ibaian beste aldean autoz aldatu eta, amildegi ertzeko zulo eta harriz beteriko bidean egin dugu aurrera. Ilunpean eta nekatuta iritsi gara Manang herrixkara. Dutxa epela, afaldu eta lotara. Itsas mailatik 3500 metrora gaude eta badirudi gorputza altuera nabaritzen hasia dela.


Iritsi da eguna, bagenuen sorbalda gainean pisua nabaritzeko gogoia, baina agian beharko ez ditugun gauza gehiegi dakartzagu gurekin. Motxila gogor estutu eta aldapan gora egin dugu. Hasieran kostata, baina erritmoa hartu ahala, erraz egin dugu aurrera. Inguruan Annapurna mendikatea dugu eta noizbehinka ostarteek haien edertasuna uzten dute agerian. Edertasun madarikatua mendi hauena, hobe dugu kontu handiarekin ibili. Guk, badaezpada, oraingoan, urrunetik begiratuko dugu mendikate hau eta altuera gutxiagoko mendiez gozatuko dugu.

Annapurna mendikatea dugu eta noizbehinka ostarteek haien edertasuna uzten dute agerian

Gorantz jarraitu dugu eta nahikoa eroso, bidean behiren bat edo beste eta mendi denboraldiaren zain dauden etxetxoak, mendizaleen arrastorik ez. Bertako zenbait gazte ere gora doaz bizkarrean egundoko zama daramatela. Erauntsia hasi du eta irekita topatu dugun etxe batean egin dugu pausa. Bertan, te gozoarekin berotu dugu gorputza azken hogei minutuak ordeka leunean egiteko. Euritan iritsi gara bizpahiru etxetxo osaturiko Ledar

ingurura. Trasteak logelan utzi eta lanean dabiltzan gazteei begira eman ditugu hurrengo orduak. Pare bat etxe ari dira eraikitzen inguruko harriak bizkar gainean garraiatuz. Ondoren, hauek tamaina egokian mailuaz zatitu eta bata bestearen gainean lokatzaren laguntzaz pilatzen dituzte. Mendizaleak iristen direnako prest behar lukete. Guk, bitartean, mendia beste ezer ez dugu buruan. Bihar mendebaldeko Chulu mendiko (6419 m) goi-kanpalekura (5400 m) iristen saiatuko gara eta gu oraindik 4000 metro pasatxoan ari gara atsedean hartzen.

Ederki egin dugu lo, sabela bete eta gora abiatu gara. Hasieran belar eta lokatz bidean, baina azkar batean hasi da harririkaria. Oinarrizko kanpalekuan geldialditxo egin, eztarria freskatu eta goi kanpalekura jarraitu dugu. Horma izugarri bat dugu esperoan eta garaierak erritmoa moteldu besterik ez du egiten. Bi pausu aurrera egin eta bat egiten dugu irristaka atzera harri solte hauen artean. Hau gutxi ez eta, gelditzeko asmorik ez duen euriak ari du; mela-mela eginda iritsi gara goi kanpalekura. Ingurua harri-pilaz eta budisten otoi-oihalez josirik dago. Guk ere mantraren bat beharko dugu aurrera egiteko. Mailo handi bat dugu ezker aldean eta honek magalean harri-koskor ugari; hauek alboratu, zorua ahal bezain beste goxatu eta denda jarri dugu bertan. Behin babes hartuta, eta gure sabelaren oihuei kasu eginez, zer edo zer sukaldatzeari ekin diogu. Gure asmoa, goizeko ordubatak aldera gailurrera abiatzea da. Honenbestez, hurrengo orduak denda barnean eman ditugu



atseden hartzen eta buruko min izugarriari te beroaz aurre egiten; edari magiko honek edan bezain pronto arintzen du buruko estutasuna.

Dendatik at ez da arimarik, isiltasunak agintzen du hemen. Tarteka, elur-jauzien orroak entzuten dira eta honek ez gaitu asko lasaitzen. Orduak aurrera doaz eta euriak ez du etenik. Are gehiago, elurra ere hasi da inguruak estaltzen eta honela ez dugu gora eginen saiatzerik. Harri askoko bideari egin behar diogu aurre eta oso irristakor jarri dute dena elur malutek. Egunsentiarik itxoin diogu aurrez erabakita genuena egiteko; denda eta inguruak jaso eta beherako bideari ekin diogu, berriro ere atzo goraka egindakoa jaitsi beharko dugu. Zalantzak ere hasi dira gure buruan birakak; behera goaz eta tontorretik urruntzen ari gara. Eguraldiak laguntzen ez badigu ez dugu saiakerarik egingo eta mendia denboralditxo batez amaitu egingo da. Gu, gure pentsamenduetan galdurik gabiltzala, mendi gandarretan sarriok ditugu zaindari, dantzan dabilzta arrokaz arroka erraztasun lotsagabez.

Egunsentia iritsi da eta mendebaldeko Chulu tontorra begi-bistan dugu

Goizeko bederatzietan iritsi gara berriro ere Ledar-era eta eguraldia aldatzen hasi da, tarteka eguzkiak ere jotzen du eta gure irribarreak agerikoak dira. Egun osoa eman dugu zerura begira, haren menpe baikaude, eta dirudie-nez, gaur gora egiteko baimena emango digu. Eguna urduritasun apur batez pasa ondoren, gaueko hamarrak inguruan zeruari azken begirada eman eta 23:10ean piztu ditugu kope-ta-argiak. Aurreko egunean igotako aldapa berberak ditugu esperoan, baina ilun dago eta ez dute hainbeste beldurtzen. Hori bai, argi edo ilun izterrek berdin nabaritu dute. Azkar egin dugu gora, irmo. Orduiak eman aurretik, iritsi gara goi kanpalekura eta bertan pausatu gara mokadua hartzera; ez dago atzo gaueko izara zuriaren arrastorik, idor aurkitu dugu dena. Hemendik aurrera hasiko da benetako harri besta. 5600 metroan gaude eta harri solte hauetan gora egitea gero eta gehiago kostako da. Gure pausuekin batera harriek behera egiten dute, batzuk zarata handia ateraz, besteak amildegiko isiltasunean galtzen dira.

Aurrera goaz, pausoz pauso altuera irabazten eta aldi berean amasa estutzen. Oxigeno falta ere gero eta nabariagoa da, gorputzak ez baitu lehen bezala erantzuten. 6000 m-ko muga gainditu dugu eta urrunean bada ere argi izpiren bat hasia da azaltzen. Orain arte

iluntasunean egin dugu bidea, ipurtargien antzera eta egunsentiak ekarriko duen argia gustura jasoko dugu, jarraian datorkigunera-ko lau begi ere beharko baititugu. Sokaz lagundu beharreko pare bat pasabidek, Hima-laietan gaudela gogorarazi digute. Hemen ez da txantxetarako astirik, badakigu oker pausu bategen nora garamatzen eta. Hala ere, hemen jarraitzen dugu zuzen emandako pausuek nora garamatzaten ere badakigulako.

Elurra zapaltzen hastera goaz. Bota altuak jantzi, kranpoiak estu lotu eta glaziarrean egin dugu aurrera. Egunsentia iritsi da eta mendebaldeko Chulu tontorra begi-bistan dugu. Harantz goaz, aurrera, zuzen. Punturik altuenera hurbiltzen goazen heinean, izotza erabat pitzatuta aurkitu dugu, Katmandurainoko zuloekin. Ez dugu aurrera egiterik, ez oraingoan behintzat. Asko jota gailurretik ehun metroren faltan geratu gara, 6300m inguruan, baina gure bizitzak ehun metro horiek baina balio handiagoa du.

Tontorra irribarrez agurtu eta beherako bidean ere zain gaitzan eskatu diogu. Zeinek daki, agian etorkizunean berriro elkar ikusiko dugu. Soseguz egin dugu behera eta tarteka elur malutek aurpegia zipriztindu digute. Zerutik gertu ez da gaizki egoten, baina gu itsas mailara ohituak gaude eta kresal-brisa dugu esperoan. Hurren arte Nepal!

Punturik gorenean, 6300 metro inguruan



